



## Areto futboleko harrobia lantzen

Gaztetxoek ederki izerditu eta gozatu dute Eguberrietako topaketetan / 6-7

## Haurren ilusioa eta gozamena begietan

Eguberrietan Olentzero, Mari Domingi, haien lagunak eta Hiru Errege Magoen bisita jaso du Lasarte-Oriak. Etxeko txikiek hamaika opari jaso dituzte / 8-9

**Intxaurrendieta eta Errazkinen aldeko mozioa eskatu du EH Bilduk, baina ez du babesik lortu / 02**

**Musika eta ipuin bihurtu dira euskal presoek egindako lanak Harresi Guztien Gaietik IX. erreztaldian / 03**

**Asteazken arratsaldean hasiko dira Bizikidetzak Jardunaldiak, Mirentxu-Enean / 05**

**Buruntzaldea IKTko igerilariek maila ederra erakutsi dute Eguberrietako hainbat saritan / 10**



## LASARTE-ORIAKO UDAL EUSKALTEGIA

IKASTURTE ERDIRAKO MATRIKULA

**Presentzialak:**

- A0 (hasierako maila) ez dugu onartzen irailera arte.
- A1: 09:00-11:30 eta 18:30-21:00
- B1: 09:00-11:30 eta 15:00-17:30
- B2: 09:00-11:30; 15:00-17:30 eta 18:30-21:00
- C1: 09:00-11:30; 15:00-17:30 eta 18:30-21:00

**On-line:**

- 100 orduko ikastaroa.

Astelehenetik ostegunera. Astean 10 ordu. Txandaka ibiltzeko aukera maila guztietan. **Plaza kopuru mugatua.**

**IZEN EMATEA:**  
Urtarrilaren 7tik 31ra



Tel: 943 36 16 21 - euskaltegi@lasarte-oria.eus - Bekokale bidea, 1 · BULEGO ORDUTEGIA: 08:30-19:00





Pablo Barrio, kontu auzitegiaren epaia azaltzen, Leire Elizegi eta Gorka Lizarraga zinegotzietan batera. TXINTXARRI

## Adostasunik ez GHK-ko buru ohiak babesteko

Espainiako Kontu Auzitegiak Errazkin eta Intxaurrendieta GHK-ko arduradun ohiak errugabetu ditu, eta EH Bilduk mozioa aurkeztu du, "modu pertsonalean" elkartasuna adierazteko. PSE-EE, EAJ eta PPren aurkako botoekin bertan behera geratu da ekimena

### Adrian Garcia

Bi gai besterik ez zeuden urteko lehen ohiko udalbatzarrean, baina eztabaidak askorako eman du. Aho batez onartu dute udal ordezkariak lehen gaia; Donostiako Udala Musika eta Dantza Eskolaren eta Lasarte Oriako Udalaren arteko hitzarmena onetsita, lan poltsa komun berrien kudeaketa bateratua egingo dute. Bigarrenak ekarri du eztabaia, batez ere EH Bilduren hitzaldi luzearen ostean. Iñaki Errazkin eta Ainhoa Intxaurrendieta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren arduradun ohien aldeko mozioa aurkeztu du, baina nahikoa babesik ez du lortu; PSE-EEk, EAJk eta PPK aurka bozkatu dute. Hori ikusita, Espainiako Kontu Auzitegiak emandako epaiaren zati batzuk irakurri ditu Pablo Barrio bozeramaileak. Bertan Errazkin eta Intxaurrendieta errugabetzen ditu, eta ardura egozten die aurreko GHK-ko

arduradunei, EAJ eta PSE-EEkoei.

Epaia oinarri hartuta, adierazpen instituzionala eskatu du EH Bilduk, Errazkini eta Intxaurrendietari "modu pertsonalean" babesa eta elkartasuna adierazteko. Erraustegia eraikitzeke prozesuaren kronologia bat egin du Barriok, eta epaiaren hainbat elementu azaldu ditu: "Obra gaindimentsionatua zegoen, eta orduko arduradunek bazekiten hori. Nahiz eta aldundiak kalte ordainak ordaindu, erraustegi hori ez zen bideragarria".

ADLOP Ahal Du Lasarte-Oria Puedek bakarrik babestu du ekimena. Aldeko sei botorekin (Kristina Bernal ez da garaiaz

**KONTU AUZITEGIAREN  
EPAIAREN ARABERA,  
ERRAUSTEGIA EZ ZEN  
BIDERAGARRIA,  
TAMAINAGATIK**

iritsi bozketara, trafiko arazoak tarteko), eta aurkako bederatzirekin, bertan behera geratu da mozioa.

### EAJren eta PSE-EEren esanak

EAJk bozkaren azalpena egiteko txanda baliatu du. Jon Antxordokiren esanetan, hondakinen kudeaketak "elkarbizitzaren krisialdia" eragin zuen pasa den legegaldian. "Gutxiengo batek gehiengo demokratikoari bere jarrera inposatzearen estrategiak sortu zuen". Halere, ez du nahi erakundeetan "ekintza politikoan parte hartu dutenak ardura ekonomikoz kaltetuak" izatea.

PSE-EEren aldetik, Lourdes Acevedo zinegotziak hartu du hitza. "Kontu Auzitegiaren epaia ez da irmoa, eta EAeko Auzitegi Nagusiak emandakoren aurka doa". Horregatik, Acevedok argudiatu du helegite guztiak bukatu arte itxaron beharko litzatekeela, "justiziaren denborak errespetatzeko".



Duela bi urte Korrika Lasarte-Oriatik pasa zeneko une bat. TXINTXARRI

## Korrika apirilaren 12an igaroko da Lasarte-Oriatik, 15:30ean

Garestik abiatu eta Gasteizko Andre Maria Zuriaren plazan amaituko da 11 eguneko euskararen aldeko lasterketa

### Txintxarri

Apirilaren 4ean abiatuko da 21. Korrika, Garestik. 11 egunez, euskararen lekukoa eskuz esku pasako dute milaka herritarrek Gasteizera heldu bitartean. Bertan amaituko da aurtengo euskararen aldeko lasterketa, apirilaren 14ean, igandean. 2.560 kilometro egingo ditu guztira aurtengo Korrikak.

Apirilaren 12an, ostirala, pasako da Lasarte-Oriatik Korrika. 15:33ean iritsiko da Usurbildik, eta herria zeharkatu ostean, Donostiarako norabidea hartuko du.

Donostiatik igaro ostean, Pasaia, Lezo, Orereta eta Oiartzun aldera joango da, baina handik berriro ere herrira gerturatuko da; Hernani, Urnieta eta Andoain zeharkatuko ditu apirilaren 13ko goizaldean.

Gasteizko Andre Maria Zuriaren plazan egingo dute amaiera ekitaldia; bertan irakurriko dute lekukoaren barruko mezua.

Euskararen aldeko jarrerak hartzera bultzatuko ditu herritarrak aurtengo Korrikak; hortik sortu dute aurtengo *Klika* leloa.

## Parte hartzea sustatuko du udalak gizarte zerbitzuei buruz

Urtarrilaren 27ra arteko epea dute lasarteoriatarrek parte hartze prozesuan iritziak eta ekarpenak egiteko

### Txintxarri

Gizarte zerbitzuetako hiru araudiren inguruko iritzia eman ahal izango dute lasarteoriatarrek. Araudiak onartu aurretik, herritarrei kontsulta egitera behartuta dago udala, eta urtarrilaren 27ra arteko epea zabaldu dute ekarpenak egiteko. Adineko pertsonentzako etxebizitza komunitarioak, bazterkeria arriskuan dauden pertsonentzako babespeko etxebizitzak eta etxean

laguntzeko zerbitzuaren inguruko balorazioak egin ahalko dituzte.

Hiru bide dituzte herritarrek iritziak emateko. Idatziz egin nahi dutenek, udaleko erregistroan izango dute horretarako aukera; idatzia aurkeztu behar dute bertan. Emailez ere egin daiteke, [partehartzea@lasarte-oria.eus](mailto:partehartzea@lasarte-oria.eus) helbidera idatzita, eta [www.lasarte-oria.eus/eu/partehartzea](http://www.lasarte-oria.eus/eu/partehartzea) webgunean ere aukera izango da.





Bihar arratsaldeko manifestazio nazionalera joateko deialdia eginez bukatu zuten IX. errezitaldia. TXINTXARRI

## Sormena ezin da barrote artean sartu

Hainbat euskal presok sortutako lanak musika eta ipuin bihurtu dituzte Manuel Lekuona kultur etxean, Presoen Lagunak taldeak egindako errezitaldiaren IX. edizioan. "Azkeneko urtea" izatea nahi dute ekimen kulturalaren antolatzaileek

### Iñigo Gonzalez Sarobe

Bazen behin Lasarte-Oriako elkarte bat, Presoen Lagunak, errezitaldiak antolatzen zituena etxetik ehunka kilometrora zeuden euskal presoak egun batez gertuago sentitzeko. Urtero-urtero aldatzen dute gaia eta gogotsu entseatzeko dute, azkeneko urtea izango denaren esperoan. Horrela has zitekeen pasa den asteko ostiral arratsaldeko ekitaldiaren kontaketa, ipuin formatuan. Ez kazetariaren kapritxoagatik, aurtengo errezitaldiaren gaiarekin bat egiteagatik baizik. Hainbat euskal presoren sormen lanak musika eta ipuin bilakatu zituzten herriko eta beste toki batzuetako zenbait artistak.

Jabi Gallaga, Ibon Fernandez Iradi, Aitzol Iriondo, Itziar Moreno, Iratxe Sortzabal, Sara Majarenas, Mikel Antza eta Iurgi Garitagoitiak askatu dute irudimena aurtengo errezitaldian, eta euren istorioak paperera eramane dituzte, Lasarte-Oriara

bidaltzeko gero. Ia bi orduko bidaia egin zuten errezitaldian, ikus-entzuleekin batera, kultur etxeko auditorioan.

### Sormenari musika jarritz

Makulu Ken Lasarte-Oriako taldeak ireki zuen errezitaldia. *Elefantea* abestia jo zuten aurrena, eta duela lauzpabost urte Iurgi Garitagoitiak bidalitako abesti bat gero. "Oso alaia da kantua", nabarmendu zuten musikariek. Itziar Arteaga, Pablo Barrio eta Unai Muñoa atera ziren gero oholtzara, Jabi Gallagak errezitaldira eramandako edukia aurkeztera. *Gallo rojo, gallo negro* izeneko abestia gustatzen zaio Kordoban preso daukaten lasarteoriatarari.

### ZORTZI EUSKAL PRESOREN SORMEN LANAK IZAN DIRA IX. ERREZITALDIAREN BIZKARREZURRA

Abesti horren doinua hartuta, hainbat kopia egin eta kantatu zituen Muñoak. Bertsoetatik, ipuinetara. Lannemezango espetxetik (Frantzia) bidali zuen istorioa Ibon Fernandez Iradik. Herritar talde batek eman zion kolorea eta forma. Bien bitartean, Xumela abesbatza aritu zen. Joseba Tapia musikariak, berriz, bideo bidez parte hartu zuen.

### Pil, ipotx ibiltaria

Energiaz beteta iritsi zen Pil ipotx ibiltaria kultur etxera. Iratxe Sortzabalek sortu du pertsonaia horri buruzko ipuina. Jarraian, *Morensugea* ezagutu zuten ikus-entzuleek, Itziar Morenoren eskutik. Hirugarren ipuina Sara Majarenasek egin zuen: *Maritxipi eta amatxo*. Herriko hainbat musikariek eman zieten doinua kontakizunei. Haur motxiladunak ere irten ziren oholtzara. Bukatu aurretik, biharko manifestazio nazionalera joateko deialdia egin zuten errezitaldiaren antolatzaileek.

## Parapetasonik jaialdia bueltatuko da Lasarte-Oriara

Lau urteko etenaldia eta gero, kontzertuz beteriko bosgarren edizioarekin bueltatuko da jaialdia herrira

### Txintxarri

Uztailaren 27an egingo dute musika jaialdia. Lau urteko etenaldia izan du Parapetasonik jaialdiak, baina berrikuntza eta guzti itzuliko da aurtengo udaran.

Udako jaialdia iritsi bitartean, Gipuzkoa zeharkatuko duen *Zital Sessions* kontzertu zirkuitua antolatuko dute; bost emanaldi bilduko dituzte bertan,

eta otsailaren leian izango da lehena, Trintxerpeko Mogambo aretoan.

Horrez gain, irudi berria izango du jaialdiak: "Umorea izango du ardatz, eta kontzertuetan agerikoak izan ohi diren estereotipoekin jokatzeko proposatuko du". Antolatzaileek iragarri dute kontzertuez gain, esperientzia berezi bat ere eskainiko dutela.



2012. urtean egindako Parapetasonik jaialdia. TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Lasarte-Oriako doinuak abesten

EITBko *Gure Doinua* saioa grabatu dute astelehen arratsaldean, Lasarte-Orian. Onintza Enbeitak gidatzen duen saioan, Pirritx, Porrotx eta Marimototz izan dira protagonistak. Ttakunenean elkartu dira, eta pailazoan abestiez, musikaz, koreografiez... hitz egin dute. Herriko hainbat haur eta heldu ere bertan izan dira, eta denek elkarrekin zenbait kanta abestu eta dantzatu dituzte. Otsailean ikusi ahal izango da grabazioa telebistan.





Jaiotza lehiaketan parte hartutako eta saria irabazitako batzuk, Danok Kideko egoitzan. TXINTXARRI

# Gabonetako apaingarrien imajinazioari sariak

Danok Kide elkarteak pozarren banatu ditu jaiotza lehiaketako sariak. 74 pertsonak parte hartu dute 26. edizioan, eta denek lan politak aurkeztu dituzte. Ahalegina eta sormena izan dira horien ezaugarri nabarmenenak, antolatzaileen arabera

## Iñigo Gonzalez

San Pedro eliza eta Azpeitia altzari-denda zena apain-apain egon dira egunotan. Danok Kideren jaiotza lehiaketan parte hartu duten 74 herritarren lanak bertan egon dira ikusgai. Ahalegina eta imajinazioa dira antolatzaileek nabarmendu dituzten ezaugarrietako bi. Horiek saritu zituzten Gabonetan, elkartearen lokalean, Oria ibaiaren pasealeku ondoan.

Isabel Zuaznabar, Jesus Mari Egizabal eta Pako Hita dira Danok Kide elkarteko kideetako hiru. Eurak arduratu ziren sariak banatzeaz eta parte-hartzaile guztiak zoriontzeaz. "Maila artistiko altua erakutsi duzue, eta imajinazioa eta sormena erabili. Epaimahaiak komerikak izan ditu irabazleak erabakitzeke", nabarmendu zuen Zuaznabarrek. Eva Lizarraga eta Pilar Domingo lasarteoriatarrek arduratu dira lanen kalitatea aztertzeaz eta irabazleak zeintzuk diren erabakitzeaz. "Ordu asko pasa zituzten gure egoitzan, deliberatzen". Kategoria bakoitzeko lehenengo saria

eskuratu zuten parte-hartzaileek egurrean egindako garaikurrak ere jaso zituzten. Javier Peña eta Jose Mari Telleriak egin dituzte denak, eskuz. Herritarrak dira horiek ere. Zuaznabarrek jakinarazi zuen 23 lan aurkeztu direla aurtengo edizioan, eta 74 pertsonak parte hartu dutela. Taldetan egin dute lan guztiek. Jose Manuel Mongeren Brancussi akademiako ikasleak izan dira horietako asko. "Jaiotzen bitartez erakutsi duzue posible dela elkarbizitza anaikor bat sustatzea, inor kanpoan utzi gabe. Eskerrik asko", adierazi zuen Zuaznabarrek, hunkituta.

## Irabazleak

Zuaznabarrek parte-hartzaile guztiak zoriondu zituen, baina esplikatu zuen ez zeudela sariak denentzako, hala merezi arren. Hala ere, makina bat gutun-azal banatu zituzten berak eta Jesus Mari Egizabalek; kategoria bakoitzeko bina. Adinaren arabera, hizki bat zegokion parte-hartzaile bakoitzari: A, B, C edo D, gazteenetatik hasita helduenetaraino.

A kategorian (6 urtetik 9 urtera), Brancussi akademiako ikasle taldeak irabazi du lehenengo saria, eta Santa Teresa ikastetxeko taldea, berriz, bigarrena.

B kategorian (10 urtetik 13 urtera) ere Brancussi akademiako ikasle taldea izan da garaile, baita Adrian Serrano egilea ere.

C kategorian (14 urtetik 17 urtera), aldiz, Sheila Serrano eta Brancussi akademiako ikasle taldea izan dira irabazleak, eta azken kategorian, D kategorian (18 urte eta hortik gorakoak), Sergio Revueltak eta Ana Barrerak lortu dute lehen saria.



Aurkeztutako jaiotza bat. TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Urtea agurtzeko, mendi buelta

Lasarte-Orian 2012. urteaz geroztik, abenduaren 31n herritar ugari igotzen dira Buruntza mendira. Mendi bueltaxka eginez agurtzen dute urtea. Ttakun Kultur Elkarteak eta Ostadar Mendi sailak elkarlanean antolatu dute aurten ere ibaldia, San Rokeko basilizaren ondora. Herritarrak Lasarte-Orian batu eta elkarrekin joan ziren Buruntzara. Musikak giroa hamaiketako ederra egin zuten.

## Zuhaitzak eta zuhaixkak berrituko ditu udalak

Neguko kanpainaren barruan, 10.377 euro esleitu ditu Lasarte-Oriako Udalak zuhaitzak eta zuhaixkak erosteko

### Txintxarri

31 zuhaitz eta 949 zuhaixka erosi ditu udalak herriko hainbat gunetakoak aldatu eta berriak landatzeko. Pepinieres Lafitte, 5.933 euro, eta Viveros Pedro Aguirre, 4.444 euro, enpresek hornituko dizkiote Lasarte-Oriako Udalarari neguko kanpainako beharrak asetzeko landareak. Guztira, 10.377 euroko esleipena da.

25 zuhaitz birlandatzeak egiteko erosi dituzte; beste sei, berriz,

Brigitarren komentuan dagoen jaiotzan jarriko dituzte. Eguberrietako jaiegunak igarotakoan, zuhaitz horiek Sasoetan N-1 autobaiaren ondoan landatuko dituzte, inguru horretako landare-hesia sendotzeko.

Bestalde, zuhaixken kasuan, 510 santiago-belar erosi dituzte Tximistarreta parkean landatzeko. Gainontzeak erretiratu behar izan direnak ordezkatzeko erabiliko dituzte.



TXINTXARRI

## Gospel kontzertua Gabonetan

Black Harmony Gospel Singers taldeak 24 urte daramatza musika estilo hori hara eta hona zabaltzen. Jeremy Viraye zuzendariak sortu zuen, 1994an; makina bat emanaldi eskaini dituzte orduetik, mundu mailako talderik ospetsuenetako bat bihurtzeraino. Lasarte-Oriara etorri ziren Gabonetan, gospel ukitu bat ematera. Gogotik gozatu zuten ikus-entzuleek. Ordu bete pasatxo iraun zuen 2018ko azken kultur emanaldiak.



# Bizikidetzak lantzeko jardunaldiak, urtarrilean

Hiru ekitaldi antolatu ditu udalak. Datorren asteazkenean 'S(u/a) minetik bakera' lana emango dute. Hilaren 23an, berriz, 'In dialogue' dokumentala. Eta urtarrilaren 30ean 'Gazteria, memoria eta transmisioa' mahai ingurua egingo dute, bi adituren eskutik

## Txintxarri

Gatazkak utzitako zauriak orbantzeko elkarbizitza landu beharra dago, eta, horretarako, udalerriek abagune aproposa eskaintzen dute; oinarritzko toki erakundeak dira, eta herritar askorengana iristeko aukera dute. Horixe aprobetxatu nahi du Gipuzkoako Aldundiak, Elkarbizitza eta Memoria sailak diruz laguntzen baititu ekimen asko. Horren emaitza dira hurrengo astean hasiko dituzten jardunaldiak. Urtarrilaren 16an, 23an eta 30an, arratsaldean, Villa Mirentxun, hiru ekitaldi antolatuko dituzte; bi ikus-entzunezko eta mahai inguru bat.

Ikus-entzunezko lan eszenikoa izango da lehen ekitaldia, hurrengo asteazkenekoa. *S(u/a) minetik bakera* lanean bi emakumeren istorioak kontatuko dituzte. Biak dira Arrasatekoak, eta bien aitak hil zituzten. Zuzenean interpretatzeko sortua den musika konposizio baten bidez, bi hilketek eragindako doluetan piztutako sentipenak eta hausnarketak lagunduko dituzte literatura erreferentziak, irudiek eta musikak. Beste ekitaldien antzera, 19:30ean izango da, euskaraz eta gaztelaniaz.



Ahal du Lasarte-Oria, PSE-EE, EAJ eta EH Bilduko ordezkariak, aurkezpenean. TXINTXARRI

Urtarrilaren 23an dokumentala emango dute: *In dialogue*. Ipar Irlandako gatazkari erreparatzen dio lanak, eta elkarrizketaren boterea erakusten du. Gatazka ikuspuntu desberdinetatik ikusten duten sei pertsona bildu dituzte mahai berdinean.

Azkenik, mahai ingurua egingo dute, urtarrilaren 30ean. Irene Gantxegi eta Iker Usonek gidatuko dute: *Gazteria, memoria eta transmisioa*. Gantxegi Euskadiko Gazteria Kontseiluaren Bake eta Bizikidetzak teknikaria da.

Euskal Literaturan biktimek izandako errekonozimendua landu du bere doktore tesian. Uson gizarte langilea da, eta bakegintzan espezializatua. Ongi ezagutzen du Lasarte-Oria, Bizikidetzako mahai dinamizatu baitu. Lasarte-Orian duela urte batzuk sortu zuten bilgune hori. Bertan udal ordezkariak duten alderdi guztiak parte hartzen dute, PP izan ezik. Horrez gain, ideologia eta ikuspuntu politiko askotako herritarrek ere ekarpenak egiten dituzte.



Azaroan eginiko protesta bat. TXINTXARRI

## Urtebete igaro arren, pentsioen aldarrarikapenak ez dira baretu

Datorren astelehenean elkartuko dira berriro Okendo plazan, Gabonen ondorengo lehen protesta ekintzan

Urtebete igaro da, baina gauzak ez dira sobera aldatu. Aurrerapausoak eman dituzte, baina ez nahikoak pentsio duinak lortzeko. Asteartean, hilaren 15ean, lehen urtemuga beteko da Lasarte-Oriako pentsiodunak protestan hasi zirela. 2019. eta 2020. urterako lortu dute pentsioak KPIaren arabera eguneratzea, baina beste hainbat aldarri bete gabe daude. Horregatik, Lasarte-Oriako

Pentsiodunen Koordinakundeak iragarri du protestan jarraituko dutela.

Gabonetako atsedenaldira ondorengo astelehenean goizean elkartuko dira berriro Okendon, betiko aldarriak entzunarazteko. 1.080 euroko gutxiengo pentsioak eskatzen dituzte. Salatu dute emakumeak direla zaurgarrienak, lanean aritu arren, askok ez dutelako kotizatu.

## Kontsulta, Auzotarren Aholku-Batzordea sortzeko

Udal administrazioaren aurrean auzotarren eskubideak babesteko sortuko dute Auzotarren Aholku-Batzordea, horrela jasotzen baitu udalaren Herritarrek Parte Hartzeko Erregelamenduak. Baina lehenago beharrezkoa da herritarren proposamenak

jasotzea. Hori dela eta, otsailaren 8ra arte kontsulta publikoa zabalduko dute. Proposamenak udalari bidali behar zaizkio, [partehartzea@lasarte-oria.eus](mailto:partehartzea@lasarte-oria.eus) helbidera, udalaren webgunearen bitartez, edo erregistroan idatzi bat sartuta. Auzotarren Aholku-Batzordeak udalak jasotako kexen, Bulego Ibiltarien eta herritarren parte hartze prozesuen jarraipena egingo du.

## Chourraut, dokumentalean

Korima Films ekoiztetxea Maialen Chourraut piraguistari buruzko dokumentala hasi da grabatzen: *Maialen Chourraut, beldurretan arraunean*. Rio de Janeiro eta Lasarte-Orian egin dituzte grabaketa batzuk, eta irailera arte jarraituko dute irudiak hartzen. Hurrengo urte hasieran dute ikus-entzunezkoa estreinatzeko asmoa.





# Areto futbolak ez du oporrik hartu

## Giro ederra final handietan

Areto futbolak ez du oporrik hartu Gabonetan. Eguzki Areto Futbolak Eguberrietako txapelketa antolatu du bigarren urtez; dozenaka neska-mutilek ezagutu dute kirol hori, eta gogotik gozatu dute. Pasa den asteko larunbatean jokatu zituzten benjamin, alebin eta infantil kategorietako final handiak Michelingo pilotalekuan, giro ederrean. Gazteenak izan ziren baloiari ostikoak ematen lehenengoak: Los Ratas eta Otsoak taldeak aritu ziren nor baino nor gehiago. 1-2 irabazi zuten otsoek. Alebinetan finala ez zen horren parekatua izan: Lagunak 0-3 Tigres con Garrapatas. Infantil mailan ere talde bat bestea baino askoz gehiago izan zen. Markagailua ikustea besterik ez dago. 0-5 irabazi zion Gure Bideak Dinamo Lasartearrak taldeari. Finalera iritsi edo ez, irabazi edo galdu, parte hartzaile guztiek jaso zuten domina, ur botila eta patata frijitu poltsa bana. Hainbat produktu ere zozketatu zituzten antolatzaileek. "Eskerrak eman nahi dizkiegu Balerdi Harategia, Trumoi taberna eta Matutanori, emandako laguntzagatik", azaldu zuten.



Nesken eta mutilen taldeek parte hartu dute jardunaldietan. TXINTXARRI



Lagunarteko giroa izan da nagusi Eguzkik antolatutako areto futbol txapelketan. TXINTXARRI



Dinamo Lasartearrak taldeko atezainak lan asko egin behar izan zuen infantil kategoriako



Areto futboleko baloia ez da geldirik egon Gabonetan. TXINTXARRI





finalean. Makina bat baloi geratu zituen. TXINTXARRI



Elastiko bana jaso dute jokalariek. TXINTXARRI



Jokalarien ahaide eta lagunek Michelingo frontoiko harmailak bete zituzten. TXINTXARRI



Bi jokalarik, baloia lortzeko lehian, infantil kategoriako finalean. TXINTXARRI



Galdu edo irabazi, denek jaso zuten domina. TXINTXARRI



Alebin kategoriako talde txapelduna: Tigres con garrapatas. TXINTXARRI



Infantil kategoriako finaleko jokaldietako bat. Kontraerasoan ona dela erakutsi zuen Gure Bidea taldeak. TXINTXARRI





Ttiriki Ttarrakako trikitilariak girotu zuten desfilea Okendoraino. TXINTXARRI



Hainbat lagun izan zituzten ondoan Olentzerok eta Mari Domingik. TXINTXARRI



Galtzagorriek lagunduta iritsi zen aurten Maritxu Teilatuko Lasarte-Oriara. TXINTXARRI



Desfilearen ostean, Okendo plazan bildu ziren herritarrak agurtzeko. TXINTXARRI



Hainbeste haur eta helduren harrera beroarekin pozik agertu ziren Olentzero eta Mari Domingi. TXINTXARRI

# Ikatz gutxi, kolore franko

Xixuko eta Porrotxekin etorri dira aurten ere Olentzero eta Mari Domingi Lasarte-Oriara. Herritarrekin kalejiran ibili ostean, eskutizak jaso, eta atsedean apur bat hartu dute. Milaka opari banatu dituzte herriko etxeetan gauean, eta pozik esnatu dira haurrak

## Txintxarri

Olentzero ikazkina eta Mari Domingi laguna menditik jaitsi dira, urtero legez, milaka opari banatzeko Lasarte-Oriako etxeetan. Abenduaren 24an arratsaldeko bostak aldera iritsi ziren herrira, eta kalejira eginez zeharkatu zituzten kaleak, Xixuko eta Porrotxen laguntzarekin. Bidean hainbat ume zituzten zain, eurak ikusteko irrikitan. Hainbat argazki atera zituzten, eta Olentzerok eskutiz batzuk ere jaso zituen.

Loidibarren pilotalekutik atera ziren karrozak. Ttakun KEko Kuadrillategi egitasmoko gazteak zihoazen aurrean, zuziak eskuetan. Ondoren, galtzagorriak, koloretako konfetiak botatzen, Porrotx bihurriarekin. Pertsonaia mitologikoak ere animatu ziren festara: basajaunak eta lamiak. Hauekin batera, Porrotxen lagun

asko ere ibili ziren herriko kaleetan barrena: Zazpikoloroa, Marimotots eta Pirritx, esaterako. Azkeneko karrozan zihoazen ikazkina eta Mari Domingi, Xixukorekin. Inigo Jaka herritarrak gidatu zuen traktorea, urtero legez.

## Kaxkotik, plazara

Loidibarrenetik Kale Nagusirantz joan zen lehenik desfilea. Bertan egon ziren hainbat minutuz, Tajamarreko biribilgunean buelta eman eta Hipodromo Etorbiderantz jaisten hasi ziren arte. Okendo plaza zuten helmuga. Ttiriki Ttarraka musika eskolako trikitilariak zain zituzten ordurako taula gainean: trikitixa eta panderoa joz, hainbat gabon kanta oholtzaratu zituzten.

Bukatu eta gero, arratsaldeko lau protagonistak atera ziren agertokira, eta baita Maritxu

Teilatuko ere. Olentzerok herritarrekin hitz egin zuen, eta galdetu zien ea ongi portatu ziren 2018an. Baietz erantzun zuten guztiek, ozen. Olentzerok badaki nork dioen egia eta nork ez: zintzoak izan zirenei opari pila bat utzi zizkien, eta bihurriak izan zirenei, aldiz, ikatza.

Taulatik jaitsi, eta umeen eskutizak jasotzera abiatu zen gero Olentzero, Mari Domingirekin eta Maritxu Teilatukorekin batera. Patxadaz eseri, eta gaztetxoekin hitz egin zuen, jakiteko zeintzuk ziren nahi zituzten opariak. Etxeko txikiak hitz egin bitartean, patxintxiak ere banatu zizkien, eta argazki bat edo beste ere atera zuen haurrekin.

Bukatzean, zakua bizkar gainean hartu, herriko txikiak agurtu eta opariak banatzera joan zen.





Ezker-eskuin, Meltxor, Gaspar eta Baltasar, Antonio Mercero gunea zeharkatzen. TXINTXARRI

# Hiru errege, hamaika opari

Lasarte-Oriako haur askok jostatzen pasa dute urtarilaren 6a, Meltxor, Gaspar eta Baltasar errege magoek ekarritako opariekin. Lanean hasi aurretik, herria zeharkatu zuten, Megaba elkarteak antolatutako kabalगतan. Ongietorri beroa jaso zuten hiruek

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Opari asko eta ikatz gutxi utzi zuten errege magoek herritarren etxeetan, pasa den asteko larunbat gauean. Meltxor, Gaspar eta Baltasar poz-pez aritu ziren lanean, herritarrek emandako ongietorri beroa ikusi eta sentitu ostean. Megaba elkarteak arduratu zen kabalगतa antolatzeaz, urtero bezala. Zenbait berrikuntzarekin, gainera: Jalgune elkartearen karroza konpondu zuten, eta oihal apaingarri berri bat jarri Antonio Mercero gunean, Jesus haurtxoari eta gurasoei harrera egiteko.

Arratsaldean zeharkatu zuten herria errege magoek, baina goizean iritsi ziren Lasarte-Oriara. Atso bakar adinekoen egoitzan dauden pertsonekin egon ziren, opariak eta irribarreak banatzen. Bazkaldu eta atseden pixka bat hartu eta gero, haurren eskutitzak jaso zituzten, patxadaz

eta pazientziak Brigitarren komentuan, paje nekazinen laguntzarekin. Haurren gurasoek ez zuten argazkiak ateratzeko aukera galdu.

## Okendotik, erdigunera

Arratsaldeko seiak eta erdietan abiatu zen kabalगतa jendetsua, Oria auzotik. Hiru erregeekin batera irten ziren patinatzaile taldea, Jalgune elkarteko lagunak, aingerutxoak, eta Udal Musika eskolako trikitilariak, besteak beste.

Biyak Bat egoitzan egin zuten aurreneko geldialdia, urtero legez. Pozarren jaso zuten bisita

## ATSOBAKAR EGOITZA BISITATU ZUTEN GOIZEAN, ETA ESKUTITZAK JASO KABALGATA AURRETIK

bertan zeuden adineko pertsonak. Kale Nagusia zeharkatzen jarraitu zuten gero, Brigitarren komentura iritsi arte. Mojekin egon, gozokiak banatu eta talde argazkia atera zuten han. Errepidea garbi zegoen, hutsik, autorik gabe. Espaloiak, ordea, jendez beteta. Zaila zen asmatzea nor zegoen ilusionatuago: haurrak, gurasoak edo aiton-amonak. Denak, irribarretsu.

Tajamarreko biribilgunea pasa eta gero, Pablo Mutiozabal kaletik sartu ziren. Geltoki kalea ere zeharkatu zuten Okendo plazara iritsi aurretik. Atzealdetik sartu ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak; Jesus haurtxoarekin eta familiarekin elkartu ziren, eta urrea, mirra eta intsentsua eskaini zioten. Udaletxeko balkoira igo ziren gero, herritarrei hitz batzuk eskaini eta eskutitz batzuk irakurtzera. Ekitaldia amaitzeko, lasarteoriatarrek agurtu zituzten.



Zuzi-argi emaileek lan bikaina egin dute aurtengo kabalगतan ere. TXINTXARRI



Gaspar, herritarrek agurtzen zaldiaren gainean. TXINTXARRI



Espaloiak bete zituzten haurrek, gurasoek eta aiton-amonak. TXINTXARRI



Brigitarren komentuan egin zuten kabalगतako bigarren geldialdia. TXINTXARRI



# Gabonetan markak eta garaikurrak metatzen

Buruntzaldea IKTko igerilariak nazioarteko eta herrialdeko sarietan lehiatu dira. Denboraldi hasierako prestakuntzak saria du; maila ederrean lehiatu dira, hainbat marka pertsonal birrinduta. Entrenamendu eta formazio saioak ere izan dituzte

## Txintxarri

Buruntzaldea IKTko kideek ez dute atsedenik izan Gabonetan. San Esteban Saria, Eguberrietako Nazioarteko Saria, Hernaniko Saria... maila guztietako igerilariak haien abilezia erakutsi zuten. Guztira 22 marka pertsonal, taldeko zazpi errekor berri eta hainbat domina eta garaikurrak eskuratu zituzten. Asteburu honetan, Gipuzkoako Kluben arteko Kopa lehiatuko dute Tolosan.

Abenduaren 29an, Eguberrietako 36. Nazioarteko Saria jokatu zuten Donostiako Paco Yoldi igerilekuan. Buruntzaldea IKTko 11 igerilari izan ziren kanporaketetan; hamar taldearen izenean, eta Ainhoa Martin, berriz, Euskadiko Selekzioarekin. 11 marka pertsonal eta taldeko zazpi errekor berri finkatu zituzten.

Gainera, zazpi finaletan ere egon ziren. Ainhoa Martinek 100 m. bular eta 200 m. lau

estiloetako finalak lehiatu zituen; bietan bigarren izan zen, nazioarteko igerilarien atzetik. 50 eta 100 metro bizkar eta 200 metro lau estiloetako probetako finaletan izan zen Leire Martin. Laugarren, hirugarren eta seigarren postuetan amaitu zituen probak, hurrenez hurren. Nahai Zudairek eta Nathalia E. Torresek, berriz, igeriketa egokituko 50 m. libreko finaleko lehen bi mailak eskuratu zituzten, Zudaire nagusi izan zen proban.

## Hernaniko Saria

Egun horretan bertan, arratsaldean, Hernaniko XXI. Sarian parte hartu zuten. Unai G. Somovilla txapeldunorde izan zen. Gainera, denera hiru urre, bi zilar eta brontze bat kolkoratu zituzten Buruntzaldea IKTko igerilariak.

Sari horretan 100 metro lau estiloetako proba egin zuten guztiak. Horrez gain, 100 metroko proba bat ere lehiatu zuten. Puntu

gehien lortzen zituenak eskuratuko zuen sariko garaikurra.

Unai G. Somovillak derrigorrezko proban urrea eskuratu zuen, eta zilarra 100m. bular proban. Horri esker, gizonezkoen txapeldunorde saria jaso zuen.

Beste dominei dagokionez, Aintzane Sarobek urrea eskuratu zuen 100 m. bizkar proban, eta Nerea Santosek 100 m. libre proban. Nora Imazek bigarren amaitu zuen 100 metro bular proba eta Eneko Elizasu podiumeko hirugarren maila izan zen 100 m. libre proban.

## San Esteban saria

Taldeko txikiak berriz, urteari amaiera emateko Oiartzungo San Esteban Sarian izan ziren. Borka Apeztegia entrenatzaileak azaldu moduan, igerilariak proba bat aukeratu behar zuten. "Txikiak, 2010. eta 2009. urteetan jaiotakoak, tximeleta,



Goian, Hernanin parte hartu zuten igerilariak. Behean, Oiartzungoak. BURUNTZALDEA IKT

bizkar, bular edo estilo libreko 50 metroko proba bat zuten aukeran. Gainontzekoek, berriz, estilo horietako 100 metroko proba bat".

Txikiak izan ziren lehenak igerilekura jauzi egiten. "Guztiak txukun aritu ziren orain arte ikasitakoa baliatuz eta giro paregabean". Benjamin eta alebinak ere "bikain eta gogotsu" aritu ziren.

Igerilari guztiek domina eta saritxoa jaso zuten parte hartzeagatik, baina hainbatek

garaikurrak ere eraman zituzten. Egindako lanari esker, Buruntzaldea IKT sariko txapeldun izan zen.

## Teknifikazioa eta formazioa

Bestalde, urtarrilaren 4an Gipuzkoako Igeriketa Federazioarekin teknifikazio saioak egin zituzten Ainhoa Martin, Leire Martin, Aintzane Sarobe eta Nahia Zudairek. Bien bitartean, taldeko entrenatzaileek ere formazio saioak izan zituzten.

## ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
ERREGIONAL OHOREZKO MAILA
<b>Ostadar SKT - Goierri Gorri KF</b> Larunbata. 17:30. Michelinen.
ERREGIONALEN GORENGO
<b>Roteta CD - Ostadar SKT</b> Larunbata. 17:30. Herrera, Donostian.
ERREGIONALEN 1. MAILA
<b>Ostadar SKT - Intxurre KKE</b> Larunbata. 15:45. Michelinen.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
<b>Ostadar SKT - Beasain</b> Igandea. 10:30. Michelinen.
JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA
<b>Kostkas KE - Ostadar SKT</b> Igandea. 14:30. Matigoxotegi, Donostian.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
